

Muga eta trantsizioa Nafarroako euskal hizkeretan

Border and Transition in the Basque Dialects of Navarre

ORREAGA IBARRA MURILLO

Universidad Pública de Navarra
orreaga@unavarra.es

Recibido: marzo de 2018. Aceptado: junio de 2019.

Laburpena: Artikulu honek XX. mendeko Nafarroako hainbat hizkeretako mugako hizkeren ezaugarriak aztertzea da, horretarako Zuazoren arabera euskara nafarrean diren hiru tarteko hizkerak kontuan hartuz (Burundakoa, Baztangoa eta Aezkoakoa). Horretarako, bi dialektologoren sailkapen- irizpideen arabera, beraien mugako hizkera zehazten saiatu gara. Hainbat hizkuntz-ezaugarri alderatuz, zehaztu da horietako zein erabiltzen diren euskara nafarrean eta zein ez. Azterketa honetatik ondorioztatzen da Burundako hizkerak duela antzekotasun -maila txikiena, eta euskara nafarreko euskalkietatik gehien urruntzen dena dela. Baztan eta Aezkoako hizkerak, berriz, euskara nafarrean sartzekoak dira, hizkuntz-ezaugarrien antzekotasuna handia denez.

Hitz gakoak: euskara nafarra, isoglosa, muga, euskara

Abstract: The aim of this article is to analyze the border character of some Basque dialects speaking in Navarre, dating from the end of the 20th century; based on oral texts from three border areas of Navarrese dialect (Burunda, Baztan and Aezkoa), according to the researcher Zuazo. In order to do so, and basing this study on the classification criteria of two dialectologists, we try to determine their boundary character by analyzing, through a contrastive methodology, which features are met and which ones are not, to include them in Navarrese dialects. The research give lower similarity results for the speech of Burunda, the one that most moves away from the character of the Navarrese dialects. The dialects of Baztan and Aezkoa show a higher percentage of linguistic features to include them in the Navarrese dialect.

Keywords: dialect of Navarra, isoglosa, border, Basque.

SARRERA

Ba ote dago euskara nafarrear¹ mugako hizkerarik edo hizkera berezirik? Nola zehaztu horien muga? Jakina denez, isoglosa izan da dialektologoentzat lanabesik hoberena hizkeren arteko mugak zehazteko. Baina, muga zehaztea zaila da eta isoglosen ponderazioaren bidez, argibide batzuk lortu beharko genituzke. Nolanahi dela ere, batzuetan muga lektalak ezartzea oraindik nahiko konplexua gertatzen da (Veny 1992: 213). «*Tratándose de hechos humanos, sociales, de extrema complejidad, no existe entre ellos fronteras matemáticas –como tampoco existen entre registros o entre niveles de lengua- sino franjas variables de transición que también pueden constituir dialectos*»

Zuazoren arabera (2014: 113) 4 azpieuskalki dira euskara nafarrear: ipar-sartaldekoa, hego-sartaldekoa, erdigunekoa eta sortaldekoa eta hiru tarteko hizkerak: Burundakoa, Baztan-Urdazubi-Zugarramurdi eskualdekoa eta Aezkoako ibarrekoa.

FIGURA 01. MAPA (ZUAZO 2016:113). EUSKARA NAFARRA. AZPIEUSKALKIAK ETA HIZKERAK.



Gure helburua da Zuazok (2014: 108) dioen *Tarteko hizkera* horiexen ahozko testu eta horien transkripzio batzuk hartzea eta euskara nafarra izateko irizpideetan oinarrituz (ondoren azalduko ditugunak) ea betetzen dituzten ala ez

¹ Zuazok (1998 eta geroko lanetan) *euskara nafarra* deitu dion modua aukeratuko dugu hemendik aurrera.

Dena dela, *goi-nafarrera* ere erabiliko da beharrezkoa denean, diakroniako kontzeptuez ari bagara. Bai eta *nafarrera* ere, egileak hitz hori erabiltzen badu.

euskara nafarra izateko irizpide horiek. Jakina, azterketa honetarako bazter uzten dira bertze ikergune batzuk Nafarroa/Gipuzkoa mugaldeko herrietakoak, sailkapen horretan ez daudelako, bakarrik hiru eremu horiek betetzen dutelako *Tarteko* izaera hori. Hemendik aurrera grabazio hauei *testu* deituko diegu, nahiz badakigun *etnotestu* edo *ahozko testua* edo *transkripzio* ere dei daitezkeela, baina, laburtzeko helburuz, *testuak* izanen dira.

Ondoren, eta Zuazok (2014: 108) euskara nafarra izateko irizpideekin eta Caminok (2009: 350) zehaztu duen 25 ezaugarri bateratzaile ez eskusiboen sortarekin, beren izaera nafarra norainokoa den eztabaidatuko dugu. Horretarako, hauxe aztertuko dugu: proposatutako irizpideak ea betetzen diren, testuaren mugak kontuan izanda, eta mintzoaren azterketa kontrastiboa eginez. Erran bezala, testu horiexetan bakarrik oinarrituko gara, hautazko elkarrizketa baten fruitu direnetan. Horrexegatik ez dugu bertze datuekin osatuko gure ikerketa; hori egitea badago, beti galdeketa-saio berriak badira, baina, hau egitean gure ikerketaren xedetik aldentuko ginateke.

Alderaketa hobeki egiteko honatx hiru eremu horietatik hartuko ditugun testuak: Baztango bi testu, (Amaieur, Aniz), Urdazubiko bat, Aezkoako bi (Aria, Abaurregaina), eta Urdiaingo bat. Osotara sei testu dira, 2000. urtean grabaturikoak ahozko bertako hizkera arduragabekoa biltzen dutenak. “Behatzailearen paradoxa” ahalik eta gehien ekiditeko, familiako edo konfidantzazko jendearekin egin ziren, berriemaileek ez zuten azentua hizkuntzan jarri, ikerketaren helburua herriko ohituretan sakontzea zela pentsatzen zutelako. Bertzaldetik, berriemaileen aukeraketari dagokionez, 2000. urteko hiztun errealak hartu nahi izan ditugu. Soziolinguistikako ikuspegitik, dudarik gabe, adinak badu eragina hizkuntza-bariazioan; horregatik, adin guztietako hiztunak hartu ditugu, tokian tokiko hizkera mintzo direnak, hori izan da irizpidea. Horiek izan daitezke 1919. urtean jaiotakoak, Aezkoako Aria herrikoa, erraterako, edota adin erdiko heldu batzuk (50 urte ingurukoak) edo 25 urteko gazte bat euskara bizi-bizirik gordetzen den Zugarramurdikoa. Bertzaldetik, irakurketa errazteko asmoz, transkribaketa ortografia arruntarekin egiten da, gure helburua baita ahozko hizkera bizi eta naturalaren ordezkapena izatea.

Jakina denez, batzuen ustez, ezaugarrien edo isoglosen bilkurak definitzen du hizkera, azpidialekto bat edo dialekto bat (Emeneau 1956: 2). Horregatik, guk ikusi nahi dugu bi irizpide horien konbinazioaren ondorioz, noraino ote diren “tartekoak” hiru hizkera hauek, alegia, hizkeren muga zehaztu nahi dugu ahozko mintzoan oinarrituz. Muga diogunean, muga dialektala eta azpidialektalaz ari gara, alegia, bi irizpide hauen konbinazioaren ondorioz, jakin nahi dugu euskara nafarraren mugaren barruan koka daitezkeen edo ez testu horiek.

Zuazok (2014: 108) euskara nafarra izateko proposatzen dituen 11 ezaugarriak hauxek dira: 1. azentu indartsua, azkenaurreko silaban. 2. Aferesia eta sinkopa. 3. erdal *-on* eta *-ion* amaierak gordetzea. 4. Instrumentalean *-s* ahoskatzea. 5. *joan*-en adizkietan *noaie* gisakoak. 6. *-ren bat* > *-on bat* egitea. 7. *yaiz* ‘haiz’ eta *yabil* ‘habil’ moduko adizkiak. 8. Nork-nori-nor adizkietan *-it*-morfema. 9. nor-nori adizkietan *-ki-* erroa. 10. geroaldian *-tuko* > *-tiko* 11. *oa-* aurrean *g-* agertzea.

Bertzaldetik, Caminok (2009: 349) zehaztu duen 25 ezaugarri bateratzaile ez eskusiboen sorta nafarrerarendako hauek dira:

Fonetika-fonologia: 1. Aferesia eta sinkopa. 2. Bokalarterko *u-k i-ra* palatalizatzeko joera. 3. /wa/-ren aitzinean *g*-garatu izana: *guai, quartu, guatze*. 4. *-rtz-* taldea. Izenaren morfologia: 5. Genitibo singularreko *-aren* > *-ain* laburdura. 6. Destinatioan eta prolatiboan *-tako* erabiltzea. 7. Bizidunen inesiboan *-ren baita* egitura. 8. Hurbiltze adlatiboan erakusleetan *-rat* morfema erabiltzea. Aditzaren morfologia. 10. Etorkizuneko morfema *-en* izatea *-n-z* bukatzen diren aditzetan. 11. Hanpadura adierazteko *-ki* aditz-atzizkia. 12. *Edun-*en orainean *dut, dun, dugu* erako adizki *u-dunak* 13. Hirugarren pertsona pluralaren morfema *-te* izatea. 14. Erlatibo eta konpletibo atzizkia lotzean *den, dela* erakoak izatea. *Izan* aditz saileko iraganean *-en* bukaera: *nintzen, zen, ginen*. 15. *Joan* aditzaren pluraleko aldaera trinkoak: *goazi & goaz, zoazi & zoaza*. 16. *Ibili* aditzaren aldaera berranalizatuak erabiltzea: *nabila & nabile, yabila & yabile, dabila & dabile*. 17. Iraganeko Nor-nork aditz sailean Nork pluralaren *-i-* agertzea: *giñuen & gindue, ziñuen & zindue*. 18. Aditz sintetikoen iragan *-a-*ren bidez egitea: *zabilen, nakien, zaukan...* 19. Adiera puntukarirako *heldu izan* erabiltzea. 20. Ahalera trinkoa galduxe izanik, *-t(z)en a(h)al* erako egitura agertzea. Sintaxia: 21. Kausazko perpausetan *bait* edo *bait* eta *-lakos* erabiltzea. 22. Denborazko perpausetan *-larik* erabiltzea. 23. *Uste izan*-ek menpeko esaldietan *-en* onestea. 24. Ezezko konpletiboaren menpeko perpausetan *-ela* agertzea. 25. *Utzi* edo *eman* menpeko perpausetan adlatiboa agertzea.

Egia da, eta kontuan hartu behar da Caminok (2009: 348) bertze ezaugarri batzuk aipatzen dituela euskara nafarra izateko; dioenez, 5 ezaugarri eskusiboen eta orain emanen ditugun 25 ezaugarri ez eskusiboen sorten konbinazioen ondorioz, nafarreraren hurbilketa hobea egin daiteke. Horrez gain, nafarrera osoa besarkatu ez arren badira bertze 9 ezaugarri hedadura zabala dutenak eta hedadura handiko hitz eta aldaera batzuk. Honenbertzez, nafarrera delakoa definitzeko 5 ezaugarri eskusiboen eta 34 ezaugarri ez eskusiboen eta hedadura zabala dutenen konbinazioaren ondorioz, hurbilketa zehatzagoa izanen genuke. Nolanahi dela ere, Caminoren 5 ezaugarri eskusiboak bilduta daude Zuazoren 11 horien artean, eta horrela adierazten dugu Zuazoren taulan (2. taulan), beltzez markatu ditugu errepikatzen diren ezaugarriak, alegia, Caminok proposaturiko 5 ezaugarri eskusibo horiek hor daude, hain zuzen ere Zuazoren 3.4.5.7.8. zenbakia daukatena dira. Horregatik, eta artikularen mugak kontuan hartuta, hautaketa hau egitea erabaki dugu, horrela bi ikertzaileen irizpideak islatuak agertzen dira.

I.- URDIAIN

Kamino (1919) eta Isidro (1926) senar-emazteak dira, Urdiainen jaiok, euskaldun elebakarrak haurtzarotik eta han bizi direnak.

-Zer adinakin hasi zinen eskolan?

K-Ez naiz ondo akordatzen, bea aik eta zortzi urteiek ez zan eskolian asten leno. Bea ni gutxi fan nintzan eskolia, amalau urteiek artien izaten zan eskolia, eta ni Gasteizen yon nintzan aurtzai, eta gio onutza etorri eta tia Mariliantxien yon nintzan aurtzai eta oi amalau urte bete baido lenuo izan zan.

I-Ni sei urte bete ta gio asi nintzan eskolan eta amalau urtetaindo izaten zan, bea ni amalau urte baido lenuo ata nintzan, amalau urte bete nituen Lazkaroko kanteran lanien zengaitik aitaibe gelditu gindan ta familia aundia genden eta ez zon dirua. Lanien nengola amalau urtetik aurria gaueko eskolia faten nintzan *«la clase de adultos»* esaten zeinia. Ez zen autzi ezta gau bat re gaueko eskolia fanbe, orduen ikasi nen nik eskolia.

-Nola zeuden antolatuta gelak?

K: Bi gela yoten zian, bat neskaindako eta bestat mutilaindako. Bata bestien aurrien yoten zian eta neskakuek maistria gendukan eta mutikiek maixua zukain. Eztakit seguro zenbat neska yonko gindan klasien bea irurogeiren batzuk yonko gindan, erriko zortzi urtetik amalau urtetaindoko neskak. Pizarra aundi bat yoten zan, onduen mapa aundi batekin. Aulkiek segidan yoten zian eta bakoitzak be maya zukan. Alde batien armaio bat yoten zan libuekin eta gainien mapa mundi bat zon.

Grupotan patzen zen, laitzen ikasten zona grupo batien, eskribitzen ikasten zona bestatien eta ola.

-Guk gendukan mutikueina maixu batekin yoten gindan. Neskak eta mutilak ezin gindan elkartu, aik eskolia batien eta gu bestatien. Orduen ez zan iten ezere batia, bakarrik rekrotan da alkarri mutxikan. Gelan mayek eta aulkiek yoten zian, mapa mundi bat re bai zon. Paretan pizarra eta gredak, guk tazairi gredak esaten gendian. Gu klasien larogetik gora yonko gindan maixu batekin da keba! maixu aik ezin zein karreraik in gukin..

-Maistrak euskaldunak?, nongoak?

K. Batzuk euskadunak eta bestatzuk erdaldunak zian. Aldi batien Arbizuko bat yon zan, Luziana, da arek dana euskaraz ematen zen bea gio fan zan da besteineko guztiek erdiaz iten zein. Geo Basilia maistra etorri zan da arek ez zakien euskiaz, Isaba o alderdi oitatik zan, eta erdiaz iten zen.

I-Ni asi nintzanien Jesuitetatik ata berri bat zon, Iruñakua zan, rojo zan au. Au naastu zanien be partez maistra bat etorri zan ta ez zen iten karrera arek, zengaitik mutikuiari makilakin ta reglakin jotzen ziaubien eta jotzen baldinbazen ...buenoooo, ona zukan! Ikiatuik aldein zen.

Onen atzetik bestat ibili genduen Ezkurra, Altsukoa arek yakusi zen bakar bakarra kantaitan eta erreztatzen izan zan. Gerra denbuen etorri zan, arek ez zakien ezer, ura ez zan ez maixua ez ezere, oi etorri zan zengaitik gerra yon zan eta ebeik partido falangista orkuek zian eta oiek kolokatzia nunai bea beste partidokua bazan, gorriek bazian, ezere.

Gendukan txarren txarrena euskeraz ez zakieila zan. Maixuek ez zakiein euskiaz eta guk erdiaz gutxi gendakien *si* eta *no* eta *yasta* zan gendakiena, gio

pixkat jarri gindan. Leno emen euskeaz, euskiaz iten genduen gu eta klaro gu tontuek gindan!

Elkarrizketatzailea: Itxaso Saez.

Elkarrizketatua. Kamino Zufiaurre, Isidro Etxabarri.

1.1. Betetzen diren ezaugarriak

Urdiaingo testuak betetzen ditu Caminoren ezaugarrietatik bi bakarrik: *-tako* destinatiboan eta *-rik* modua adierazteko, baina ez da erabat betetzen *ondo* aldaera dugulako *-do* (*ondo*). Bertzaldetik, Caminok (2009: 348) definitzen dituen nafarrera izateko 5 ezaugarri eskusiboetatik ez da batik ere betetzen. Horrez gain, Zuazoren (2014) ezaugarriak ez da bat ere betetzen. Bertzaldetik, kontrako ebidentzia dugu, *-st* taldea baitugu: *beste*. Aditzean: *zan*, *nintzan* gisako adizkiak ditugu lehen aldian eta *dana*-ren ordez, *dena* dugu. Nor-nork aditz sailean Nork pluralaren *-i*-ren ordez *-nd*-dugu: *genduen* (*-iñu*); eta sintaxi alorrean *-nean*-ekin osaturiko denborazko esaldiak ditugu. Honenbertzez, euskara nafarretik urrutien dagoen testua dela uste dugu, bi irizpideen arabera, mugatik bertze aldera dagoen hizkera dugu hau.

1.2. Burundako ezaugarriak eta eremu zabalagoa hartzen dutenak

Burundako ezaugarri berezko batzuk agertzen dira transkripzio hauetan, honetarako, ikus Zuazo (2010: 65 eta hurr.).

Fonetika-fonologian: *fan* ‘joan’ aldaera dugu, ezaugarri hau Aezkoarekin konpartitzen du, Gipuzkoako mendebaldeko herri batzuekin eta euskara nafarra duten bertzeekin. Bertzaldetik, *-n* -> *-nd* dugu *baino* > *baindo*. Horrez gain, *-raindo* morfema dugu Burundan, nahiz, de Rijk-ren (1992:707) arabera, *-nd*-zaharragoa den *-n*- baino. Halaxe da *izan*-en adizkietan: *gindan* ‘ginan’.

Izen morfologian absolutibo kasuan *-a*-z bukatutako hitzetan + *-a* determinatzailea elkartzean -> *-ia*: *eskolia* dugu. Urdiainen arauzkoa da goranzko diptongoak sortzea, /-a +a/ bilkuretan. Horrez gain, datiboan pluraleko morfema berezia den *-iri* dugu: *mutikuri*. Urdiainen *bea* ‘bera’ eta *ebeik* ‘berak’ erraten dira. Bukatzeko, *be* ‘gabe’ aldaera hedatzen da (Erdozia 2004: 65) Sakanan ere: *aitaibe* ‘aitatik gabe’, *fanbe* ‘joan gabe’.

Aditz morfologian *eduki* aditzean *gendukan* modukoak ditugu *egon* 3. pertsonaren lehen aldian: *zon* ‘zegoen’ dugu. Bertzaldetik, **edun* dugu iraganaldian: *Nen* ‘nuen’ eta *-ko* morfema geroaldian *-n*-z bukatutako aditzetan, *-nko* aldaera eginez: *yonko* ‘egongo’. *Izan* aditzean 3. pertsonaren aldaera *zan* da eta ez *zen*. Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan gehienez *-a*- dago eta *-e*-berri, Ipar Euskal Herrian eta Nafarroan. Burundak eta Sakanak mendebaleko eta erdialdeko hizkerek egiten du bat, eta beraz, *-a*- erroa daukaten adizkiak erabiltzen dira; aldiz, *-e*- dago Goierrin. Lexiko alorrean, Urdiaingo eta Bakaikuko berezko ezaugarria *mutxikan* ‘jolasean’ da. (Erdozia 2004: 162).

II.- AMAIUR

Emazte honek 65 urte zituen grabaketa egin zitzaionean. Senarra eta gurasoak ere horkoak dira, bizi guzian herrian egon da, nekazari etxe batean; euskaraz aritu da bizi guzian.

Oraingo bizitza eta lehenagokoa

-Bizia oso desberdina da?

-Arront, arront, arront, arront desberdine da bai. Orai bada, bada bizion, beno iruditzen tzait badela bizio geyago, bada lujo geyago. Porke gu, gure amak azi zakun guk etxian biltzen gintuen urte guziko ilerra, bakizu zer den ilerra? ba, alubia, banabarra. Eta gero, gu ez gara arront-arronta. Klaro, baginuen ainbertze yende. Nere amak bazuen aitetama, amar ume, bazuen koñadue, bazuen amatxi, izua, ainbertze famili. Nerea yuntetu gara maien amasei laun. Eta iten zaskuten an ilerra, inen zuten potaje ona, inentzuen amak potaje ona, eta gero gaztañak erre paderaikin gaztañak erre, antxe denak inguruz-inguru yartzen giñen ta gaztaña erre yaten. Baña klaro, miseri geyago. Gosea ezkinuen pasatu, miseria geyago bai. Bañan *feliz* ginen, *feliz*.

Ezkontza beltzez

Eta nola izan zen zure ezkontza? Elizatik, txuriz edo nola?

Amaiurren ez, traje beltz batekin esposatu nitzen. Eta gero buruen banuen, nola erten da? Jesús, Maria! ala xapel batekin esposatu nitzen. Jesús Maria! alako xapel bat, bañan...Ara non dagon nere fotua!, an dago fotua neria! Kusi duzu? Nere aizpa ere intzen ni baño lentxago pixke bat, arek ere intzuen beltz, bestidu beltza, ta ni traje beltxakin. Nere denboran zuris guti'tentzen.

Ezkondutza aitzin

Disfrutatzen nuen nere manerian, *a mi manera*. Baña neri sekulan etzait gustatu dantzatzia ta oiek. Dantzatzia etzait eundeño gustatu. Nere gizona, orai iteut, e! Pues lenago ez baitzen kotxeik, guti zen autua ere, ibiltzen ginen mutuan pasaietan. Ibili ginen bizpairulau urtez, ola nobio ta gero esposatu nintzen oitairu urtetan. Nekazari etxe batera gan nintzen kanpora. Ta gero an ezbaikinuen ongi eldu zar-gaztiak, pues, nere aitek artu zaten berriz, gero aitek man tzaten bere etxia, ta gero an, orai an bizi naiz ni. Ni beti akostunbretu naiz Amaiurren, ta Amaiurtik ez naiz sekulen atra. Beti-beti Amaiurren. Nere ama eritu zen gazteik eta beti egon nintzen amaikin ogeitairu urtiak artio, gero esposatu nintzen, bañan Amaiurren berian, andik ez naiz atra.

Eguneroko lanak

A! Pues goizetan yeikitzen naiz segiduan beitiere, asten naiz aziendekin lanean. Gero bertze rato bat gaten naiz goitiere, gero berriz beitiere, ta ola pasteut egune. Bai, aziendekin orai arpatzeut pixke bat triste azienda kentzekin semiak,

bueno, errandaut denak eztuela kenduko; bañon klaro, arpatzeut triste, Ai! Erten diot, Jesús! Gero tristezin dela, bañon klaro, ni ere zartzen ai naiz ta lan gutiago askiut. Beiek maiteut, ardiek eztut maite.. Ta oi, egun guzie, batian baratzian, bertzean kuadran, ta ola pasten zait neri eune.

Elkarrizketatua: María Ugalde

Elkarizketatzailea: Iria Torrado

2.1. Betetzen diren ezaugarriak

Caminoren (2009) ezaugarri hauek betetzen dira:

-Sinkopa, kontsonanteen arteko bokala maiz galtzen da Baztango mintzoan: *erten* ‘erraten’, *arpatzen* ‘harrapatzen’, ‘aurkitzen’, *pasten* ‘pasatzen’, *atra* ‘atera’. Bertzaldetik, aferesiaren kasuren bat badago: *kusi* ‘ikusi’. Bertzaldetik, -rtz- taldea ere badago: *bertze*.

-Azentu indartsua da, nahiz eta ikerketa sakonik ez den egiten hemen (Salaburu, Lakar 2005: 45,33). Izen morfologian -s instrumentalena ageri da: *zuris*. Aditzetan -iñu erroa dugu: *ezkinuen*. Iraganean *Nintzen* gisakoak eta *Dut* motako aditzak ditugu eta -te pluralgilea 3. pertsonarena.

Sintaxian -*Bait* morfema dugu kausazko esaldietan: *lenago ez baitzen kotxeik* ‘ez baitzen kotxerik’, *ezbaikinuen ongi heldu* ‘ez ginelako ongi konpontzen’. Bertzaldetik, Zuazoren (2014) ezaugarri hauek betetzen dira testu honetan: 1. Azentu indartsua, 2. Sinkopa eta aferesia, 3. adizkietan -it pluralgilea dugu: *biltzen gituen* ‘biltzen genituen’.

Bukatzeko, Caminoren (2009) 5 ezaugarri eskusiboetatik 2 betetzen dira (*joan* aditzarenak, *noaie* gisakoak eta Nork-nori-nor adizkietan -it- pluralgilea erabiltzea). Zuazoren ezaugarriak, aurretik aipatutako bi horiez gain, Caminorekin (2009) konpartitzen dituenak, badira bertze bi: aferesia eta sinkopa eta azentu indartsuarena.

2.2. Eremu zabalagoa hartzen dutenak

-Txistukari frikatiboa hasieran, goi-nafarreran (GN hemendik aurrera) ohikoa dena arrunta da. Hitz hasieran x- izatea ohikoa da Ipar Euskal Herrian, lapurteraz eta behe-nafarreraz batez ere; hots, nafar-lapurteraren ezaugarria da: *xapel bat* ‘txapela’ (Montoya 2004: 77).

-Kasu sozietiboa -*aikin* morfemarekin egiten da, euskara nafarrean eremu handian ere ohikoa denez: *amaikin* ‘amarekin’, *paderaikin* ‘paderarekin’ (Ibarra 2000: 101).

-Adlatiboan, *goiti* eta *beheiti* ditugu, euskara nafarrean eta ekialdeko hizkeretan bezala: *beitire* ‘behera’, *goitire* ‘gora’-k (OEH s.v. goiti) hedapen zabalagoa badu ere.

-*Artio* ‘arte’ posposizioa arrunta da euskara nafarrean: *ogeitairu urtiak artio* ‘hogeita hiru urte arte’.

-Aditzondoak errepikatu egiten dira indartu nahi direnean. Euskal Herriko mendebaleko eta erdiguneko hizkeretan, mugagabeen edo partitiboan deklinatu ohi dira halako errepikapenak; aitzitik, euskara nafarraren eta ipar Euskal Herriaren ezaugarria da errepikapenean mugatzailea erabiltzea: *ez gara arront-arronta*. Lexikoan honako hauek lotzen dute euskara nafarrerarekin: *aitetama* ‘gurasoak’, *arpatu* ‘aurkitu’, *eritu* ‘gaixotu’, *esposatu* ‘ezkondu’, *eundeño* ‘inoiz’ (*OEH* s.v. *egundaino*), *guti* ‘gutxi’.

-**Jo* taldea, *joan* > *gan* bihurtzen da Baztango mintzoan ohikoa denez, Zugarramurdi eta Urdazubin ere aukera nagusia *gan* da (Montoya 2004: 74), baita lapurteraz ere.

2.3. Baztango berezko ezaugarriak

Ez da harritzekoa ezaugarri eksklusiborik ia-ia ez izatea Baztango eremuan; ez dagoela erran dezakegu, baina, ia-ia Baztanera mugatzen diren ezaugarriak honako hauek dira:

-Nork-nori-nor aditz paradigman *-aku* erako formak erabiltzen dira, alegia, **eradun* erroa dago. Salaburu, Lakar (2005: 109) ikertzaileek diotenez, Urdazubiko, Zugarramurdiko eta Baztango hainbat herritako mintzoan ageri dira: *kartzen tzakuten azukrea* ‘ekartzen ziguten azukrea’, *gure amak azi zakun* ‘gure amak hazi zigun’. Horrez gain, Nork-nori-nor sisteman hark-niri pareari dagokion morfema *daut* da, alegia **eradun* erroa dago berriz ere: *erran daut* ‘dit’

-Nork-nori-nor sistemaren morfemak erabiltzen dira nork-nor-en orde: *nere aitek artu zaten berriz* ‘nere aitik hartu zidan (ninduen); bertzaldetik, *aitek man tzaten* ‘aitak eman zidan’. Hau ohikoa da Baztan guztian (Salaburu, Lakar 2005: 110).

Lexiko arloan *izua* ‘izeba’ dugu, Izeta (1996: 103) ia ezaugarri eksklusiboa dena; nahiz eta Aezkoan ere badagoen eta Lizarraga Egoiengo hiztegian *izo* erabiltzen den.

Honainokoa laburbilduz, erran dezakegu testu motz honek nahiko argi erakusten duela nafarreraren ezaugarri esanguratsuenak, ezaugarri eksklusiboak, berezko ezaugarriak eta eremu zabalagoak hartzen dutenak betetzen ditu testu honek, eta denen konbinazioen ondorioz, testua nafarra dela erran dezakegu.

III. ARIA

Emakume hau Arian jaio zen 1919 urtean eta han bizi izan da bizi guzian 82 urte arte, Ezpelondo etxean. 2001. urtean grabatu zion herriko ezagun batek.

Etxea nolakoa den

Pues beitian artegia, gero ganbera, gero sabea, sukaldea ta ganbara. Mai bat, katera batzuk... ez genuen lujoik. Lastoa, gori, sabean, sabean edo artegian, ganbaran ez.

Herriko etxeak

Gau Ezpelondo, gori Loprena, beitiko Etxeberrikoa, goingoa Iturraldekoa, ori bizi dena, gero goikoa Nabena, Bixentena, Xamarrena, Erteikoa, Xaubikoa, Apatekoa ta Laurenzena, ta Etxeberrikoa, erran dut Etxeberrikoa, ez dakit erran dutan. Ez da berzik ya, bertzeak zerratuak dira; yoanak dira denak. Arian ez dut orain xur; bea bada, asteondarretan bai, baina bertzeinak... gor bida bakarrik, gen bat, Iturraldekoan bertze bat bakarrik, Bixentenan bat bakarrik, Xamar(re)nean bat bakarrik. Bixentenan neskakoa, Xamar(re)nean gizona, Goikoenan gizona, Iturraldekoan gizona, Etxeberrikoan bortz, bortz dira, gero Laurenzenan astean zenean normalean bida. Aste ondarretan igual zazpi o zortzi, Iruñian dira denak, gero Apatekoan, ointxi euki tuzte aurrak, pues irur ume, ta senar-emazteak bortz. Migelsaurikoan irur aur ere, aste ondarretan irur edo laur geixo, ta ez da geo. Yabenian zazpi, oek egunez lanera faten dira Iruñara, baina geo gabasko beti etxean. Orai badira etxeak zerraturik, ezpita jende.

Lehenagoko ezkontzak

Bai, ta oixe, enamoratzan dire ta ezkondu ta yasta, ta ongi bizi badira ongi ta ezbadira separatu ta yasta. Dotea? ori ez da lenau bezala. Lenau emaztekiari ematen zen pues, erraten batendako dozena bat eskuoial, aurpegia ta txukuntzeko dote, gero goatzeko mandreak, ta gizonari atorra, ta kamisetak, ta... ba orai ez, orai xoxa ematen da ta yasta; ematen da nai dutena edo al detena. Emakumeari etxeako gauzak, mandreak ta eskuoial ta serbilletak, ta emazte-kindako; ta gizonendako arropa.

Jantziak? Orai xuriz eiten dira denak, ta orai ez dira errietan eiten, orduan errietan eiten ziren, orai denak kapitalean eitten dira. Len bai, len nobin etxean eitten ziren festa guziak, nobin etxean eitten ziren ta egun bat ola pasa ta orduan ez zen biajeik ta deuse. Egun bat edo pare bat pasatu ongi ta bestik deuse, ta lanera!.

Erromeriak

Bai, Sanjuankina yoaten zan balle guzia, erri guzia, bederatzi erri dira ballen, osea erri guzitik yoaten ziren egun bat pastra. Bada bat Sanjuakinen, gero Orreagara, ta beztik ez da. Ba Sanjuakina joaten zen *Pascua de Pentecostés*, urbilen zortzian, urbilen igandian, eun bezala Bazkoa *Resurrección*, eta urbilen astelena yoaten zen Sanjuakina. Egun bat pastra ara, meza, arrosario, ta oñez jende guzia. Orai Orreaga, Garazia joaten. Berze deus ez da. Urtean bein orei Orreaga, baia ya Sanjuakina bate erori zen ta... meza berze erromeri

beten, seuro Joakin edo Orreaga orain. Orreaga joaten dira maiatzean, maiatzean igande bates, azkenean joaten dira, ez da berzik. Aezkoako umeak joaten ziren aezkoanas bestiturik ta gizonak igual-igualak. Alkatea faten ziren trajez; trajea zuten xarmanta alkatek..

Pantalonak onatreino, temen zeiza lotuien, ta gero beitik galtxuina, ta emendik goitik zaten zuten blusa bat, ta gero kuello bat... bixiki politta! Dena rizatuik, xuria, bai ta gorai gori xegitzen dute. Ikusteko... Aezkoa prozesio egunian etorri gona! Eguna ez dakit xeguro, lenago izate ze, Ariako festa izate zire irur egunez, laugarren egunian, Ariako festak pastu ta bidamunean, ortzegunean.

Erdaraz elekatzen

Uskara norengaitik ikasia? Aita-amak gu bezela. Guk aiettik ikasirik. Berak izen tzeike altzinagoetan izan zeike uskara, uskara on. Guk anitz egin dugu erdaraz. Gurea ez da ez uskara eta ez erdara, ta gau guetako ezta ere. Ademas, orai ya uskara ez da elekatzen'e! Ez da solas eiten; gazteak batere! Ikastolara ez dira faten, anitzek ez dute ikasi ta berze anitzek ikasten ari dira, baia... anitzek ez dute nai. Gu ola nau beti, karo, ta gure aitzinekok lekatzen zuten uskara, ta gen beren Arian, txikitik aurrak beti uskaras.

ta gero izen zen maixtra bat euskalduna gen, ta gero gorrek, erriko etxe gortan zen eskola baita... ta goardik atzu ta plazan aurrak, pues eskolatik atera orduko uskaraz, ta goitik fan ta maixtra bat baska izan zen, e, ta kastigatzen zitue: ez dizuet aittu nai elekan uskaraz!

Astoak zirela problemen ikasteko, ta ordun utzi zuten Ariako aurrek euskera lekatzeari.

Elkarrizketatua: Benardina Elizagarai

Elkarrizketatzailea: Orreaga Azkona

3.1. Betetzen diren ezaugarriak

Ugari dira betetzen diren ezaugarriak, euskara nafarraren barruan kokatzeko, Zuazoren (2014) ezaugarri hauek agertzen dira:

Aezkoako mintzoan azentua indartsua da (Mixelena 1976: 150). Bertzaldetik, aferesia agertzen da kasu bakan batzuetan: *lekatzen* 'elekatzen'. Sinkopa ere, jakina denez aezkeraren joera bizia da: *mandrea* 'maindirea', *pastra* 'pasatzera', *batre* 'batere', *Loprena* 'Loperena'. Noraino morfemarekin ere betetzen da sinkopa: *honatreino* 'honataraino'. Bertzaldetik, erdal *-on-ez* bukaturiko hitzetan *-on* taldea gordetzen da: *pantalonak* 'galtzak'. Instrumentalean *-s* dugu: *gabasko* 'gauerako', *aezkoanas*, ohikoa denez Aezkoan, ia-ia beti apikariarekin egiten da (Apalauza 2012: 312). Bertzaldetik, Caminoren (2009) ezaugarri eksklusiboetatik bi betetzen dira: *-on*, *-ion* taldea gordetzea eta *-s* instrumentalarena.

Nolanahi dela ere, hainbat ikerlarik agertu izan dituzte zenbait zalantza azken ezaugarri honen arabera. Zelaietak (2010: 188, 84. oin-oharra) instrumentaleko *-s* aldaeraz honelaxe dio: “Dialektologia sinkronikoaz den bezainbatean, ez dakusagu sobera garbi ezaugarri honek nafarrera determinatzeko omen duen esklusibotasun maila”

Caminoren (2009) ezaugarri hauek betetzen dira testu honetan: aferesia, sinkopa, *-rtz-* taldea ekialdeko euskalkietan bezala: *berzik* ‘besteak’, *bertzieinak* ‘besteenak’, *errateut* ‘erraten dut’. Genitiboan *-aren* > *-ain* laburdura dugu, sistematikoa ez bada ere.

Aditzetan, *dut* gisakoak eta *-te* 3. pertsona duten aditzak daude eta *den, dela, nintzen* gisako aditzak.

Bukatzeko, *bait-* > *bit* morfema dugu kausazko esaldietan: *orai badira etxeak zerraturik, ezpita jende* ‘orain badira etxeak itxita, ez baita jende’.

3.2. Eremu zabalagoa hartzen dutenak

Dudarik gabe, Aezkoako hizkeretan badira ekialdearekin lotzen dituzten ezaugarriak, alegia, hedadura zabalagoa dutenak. Zenbatzaileetan *bida* ‘bi’ dugu, izenik gabe doanean, Aezkoan eta GN (goi-nafarrera) hegoalde eta ekialdera hedatzen da joera hau (Ibarra 2000: 138). Bertzaldetik, *hiru* eta *lau* zenbatzaileetan *-r* kontsonantearekin bukatutako aldaerak gordetzen dira: garai bateko arkaismoaren erakusgarri (Camino 2003: 77) behe-nafarreraz eta lapurteraz ohi bezala: *irur ume, irur edo laur geixo*.

Erakusleek, izenordainek eta aditzlagunek *g-* protetikoa dute hasieran. Jakinaenez, ezaugarri honek Nafarroako ekialdeko hizkerekin lotzen du Aezkoa (Camino 1997: 407) eta, sistematikoa ez bada ere, Erroibarreraino hedatzen da (Ibarra 2000: 128): *solo gori* ‘solo hori’. *Lastoa, gori sabaan* ‘lastoa, hori sabaioan’, *gala* ‘hala’, *gau* ‘hau’, *gen beren* ‘hemen berean’, *gandik* ‘handik’, *goekin* ‘horiekin’, *gorrek* ‘horrek’; *erriko etxe gortan* ‘herriko etxe horretan’, *etorri gona* ‘etorri hona’; *gandik* ‘handik’, *gebetreraino* ‘hauetaraino’, *ta ni gori* ‘eta ni hori’ (Camino 1997: 407).

Ergatibo pluralean *-ek* dugu, ekialdeko hizkeretan ohikoaenez: *trajea zuten xarmanta alkatek* ‘traje polita zuten alkateek’, *Anitzek ez dute nai* ‘anitzek ez dute nahi’.

Datiboaren komunztadura falta dugu Baztango mintzoan eta ekialdeko hizkeretan gertatzen den bezala: *emaztekiari ematen zen* ‘emazteari ematen zitzaion’ (Ibarra 2000: 179).

Aditz morfologian, iraganaldian, **edun* eta **izan* aditz laguntzaileen azken *-n* galtzen da, GN hegoaldean bezala, bereziki, ondoko Erroibarko joera ezaguna da hau: *kendu zute* ‘kendu zuten’, *izate ze, izate zire* ‘izaten zen, ziren’ (Ibarra 2000: 145).

Sintaxi arloan hauek nabarmentzen dira: osagarri zuzena genitiboari eranstea: *ren...tzeko* egiturarekin GN hegoaldekoan eta ekialdeko hizkeretan

bezala: *Astoak zirela problemen ikasteko* ‘astoak zirela problemak ikasteko’. Extraposizio bidezko TO Gen erakoak, egun Ipar Euskal Herrian eta ekialdeko hizkeretan nagusi dira (Camino 2003: 77), baina, gibelera doan ezaugarria da ondoko Erroibarren eta Esteribarren, erraterako (Ibarra 2000: 208).

Azkenik, *utzi* eta *hasi* aditzarekin *-tzeari* nominalizazioa erabiltzen da: *utzi zuten Ariako aurrek euskera lekatzeari* ‘utzi zioten Ariako aurrek mintzatzeari’, euskara nafarraren ezaugarri hedatua dena.

Lexiko item hauek GN hegoaldearekin eta ekialdearekin lotzen gaituzte: *aisa* ‘erraz’, *altzinagokoetan* ‘aurreragokoetan’ (Ibarra 2007: 9), *asteondar* ‘asteburua’, *aurride* ‘anai-arreba’, *baia* ‘baina’, *beiti* ‘estrabilia’, *beztiturik* ‘jantzirik’, *elekatu* ‘mintzatu’ (Camino 1997: 603), *emazteki* ‘emaztea’, *galtxuín* ‘galtzerdi lodia’, *iruzkia* ‘eguzkia’, *ja* ‘deusez’, *katera* ‘katedera’ (Ibarra 2007: 81), *ondar* ‘azkena’, *primadan* ‘udaberrian’, *solas in* ‘mintzatu’, *solo* ‘bakarrik’ (Camino 1997: 500), *xoxa* ‘sosa, dirua’, *xur* ‘ziur’, *zerratu* ‘itxi’.

Kontuan hartuz testuaren mugak, eta jakinki ezaugarri batzuk betetzen direla, baina testuan ez direla agertzen, bistan da Zuazoren ezaugarrietatik %36a betetzea eta Caminoren %24a betetzea nahiko portzentaia handiak direla. Horrez gain, nafarreraren ezaugarri eksklusiboak ere betetzen dira. Dударik gabe, behe-nafarreraren eragina eta ekialdeko hizkeren eragina agerian dago morfologian eta syntaxian (osagarri zuzena genitiboan, Ergatibo pluralean *-ek* izatea, erakusleen, izenordainen eta aditzlagunen *g-* protetikoa eta lexikoan: *elekatu*, *solo*, *zerratu*, *primada*), baina, horrek ez du lausotzen izaera nafar hori testuan agertzen dena.

IV. ANIZ

Elkarrizketatua 51 urteko emakume baztandarra da, herrian bizi izan dena 36 urte arte. Elkarrizketa etxean egin zion iloba batek.

Aitzineko festak

Ordun polite izan zen ez, lenengo aldie?

Bai, ba! Bueno, ure zen... guretako geyena.

Ta ya aipatu duzula oi festa, nolakua zen lehen festa giroa, nola aitu datzuet noizbait amai ta itzeiten Zigako bestak eta egiten zizutela ilusio andie ta ola oi...

Bai. Gaten giñen, Zigen bagintun iru famili, bai iru itxe, ziren aman aizpe eta anai bat. Bi aizpe, ez, iru aizpe eta anai bat, lau etxe gintun. Orduen, gaten giñen gure itxeko familie, nere familie, aite, ama, nere anaiak, osabak, izebak... denak iten giñuen banatu. Bi etxe batera, bertze bi bertzera, bat eztakit nora... ola ibiltzen giñen, pasten gintun iru egun, bueno amak eta aitek ez, amak eta aitek eta osabak eta izebak itzultzen ziren lenbizko egunian. Gu egoten giñen igual lau egun an lengusuekin.

Ta gero Anizko bestetan aldrebek ez, an dena zuek in bearra bazkariak ta...

Bai. Anizko bestetan etortzen ziren gure itxera eta gu lagundu bear izaten giñun amari, amai ta izebei.

Ala ere, dena etzen izango festa itia ez? Ibiliko ziñeten ere aziendan eta aita ta amai laguntzen ta ola... Nola iten ziñuten banandu anai-arreben lana ta ola?

Lana?

Baserriko lanak

Denetan ibiliko ziñeten edo?

Bai bai! Ni oroitzen naiz gainera, bueno, eskola denborian, ni eskolara gaten nintzelaik, Anizen bazen eskola orduen eta, asten giñen eskola onduan asten giñen frontonian jostetan eta oroitzen naiz bueno, amak eta edozeinek, aitek edo izebak edo osabak, deitzen zakuten, “torri itxera!” eta gan bar izeten giñun oiluak bazkatzera. Oiluak egoten ziren alako borda batian, izeten gintuen eta an, pues ayei bazka matera, bueno lenik bazka prestatu, artua kaxkatu eta ola eta gero oiluei man.

Gero, oiluei atia etxi eta olako lanak eta gero ibiltzen giñen ere. Orduen baziren, denbora artan baziren landak, orai ezta landik baño orduen baziren landak, eta in bear zen lurre landu, in bartzen goldatu, aratu... olako gauzek eta gu ibiltzen giñen beien aitzinian eta gero gaten giñen eskolara. Ortik lan oiek in eta eskolara edo eskol'onduan eta batzuten eskolatik faltatu ere iten giñen, eta baño bueno, ni batzuten niger ta guzi iten nuen, eskolara gan nai nuen eta... etzen posible.

Elkarrizketatua: Francisca Iturri

Elkarrizketatzailea: Iosu Iturri

4.1. Betetzen diren ezaugarriak

Zuazoren (2014) ezaugarri hauek betetzen dira testu honetan: azentu indartsua dugu,

azkenaurreko silaban. 2. Aferesia eta sinkopa. 3. erdal *-on* eta *-ion* amaierak gordetzea. Oso tara, Zuazoren %32a betetzen da; horrez gain, nafarrera izateko Caminoren (2009) ezaugarri eksklusiboetatik bat betetzen da.

Bertzaldetik, Caminoren (2009) ezaugarrietatik %27a betetzen da. Fonetika-fonologia arloan honako hauek ditugu. Aferesia: *matera* ‘ematera’, *torri* ‘etorri’, *in* ‘egin’. Sinkopa arauzkoa da: *arpatu* ‘harrapatu’, *lenbizko* ‘lehenbiziko’, *gintun* ‘genituen’. Horrez gain, *-rtz* taldea nagusitzen da: *bertze* ‘beste’. Bertzaldetik, erdal maileguetako *-on* bukaera gordetzen da: *frontonian* ‘frontoian’. Bukatzeko, aditzetan, *edun* iraganaldian *-int-* aldaerak ditugu: *izeten* *gintuen* ‘genituen’.

4.2. Eremu zabalagoa hartzen dutenak

Baztango berezko ia ezaugarri eskusiboa da Nor-nori-nork iragaraldian *-aku-* erroa erabiltzea: *zakuten*, eta orainaldian *-atzu-* erroa: *datzuet* ‘dizuet’ eta *gan* ‘joan’ da hangoa berezkoa (Izeta 1996: 92). Bertzaldetik, honako hau ezaugarri zabalxeagoa da; alegia, datiboaren komunztadura ez islatzea aditzean: *bear izaten giñun amari, amai ta izebei* ‘behar izaten genuen amari eta izebari’ (Salaburu, Lakar 2005: 147).

-Ordinaletan, *lenik* ‘en primer lugar’ aldaera dugu Iparraldeko hizkeretan eta nafarreraz erabilitakoan.

Eta bertze hauek euskara nafarrean nagusi dira: *aitetxi* ‘aitona’, *aitzinian* ‘aurrean’, *jaus* ‘ezer ez’, *jostetan* ‘jolasean’, *niger* ‘negar’, *solas* ‘hitz egin’, *sortue* ‘jaioa’.

Sintaxi arloan *-larik* morfema nagusi da Baztango mintzoan eta nafarrerazko eremu handian denborazko esaldietan: *eskolara gaten nintzelaik* ‘eskolara joaten nintzenezan’.

Honainokoa laburbilduz, badira Baztango ezaugarri berezko batzuk betetzen direnak. Gutxi dira, dudarik gabe, gainerakoak eremu zabalagoak dira. Koherentea da hau, euskara nafarraren erdialdeko hizkera izanda hau; nolahi dela ere, osotara, Baztango testu hauek euskara nafarraren barruan kokatzeko arrazoiak ematen dizkigute. Aitzitik, ekialdearekin eta behe-nafarrerarekin lotzen duten ezaugarriak urriak dira, Aezkoako testuekin alderatzen badugu, azken hauek ekialderagoko itxura nabarmenagoa dute eta.

V. ABAURREGAINA

Elkarrizketatua Juan Luis Landa (1950) herriko artzain eta nekazaria da, euskaraz familiakoekin aritzen dena. Elkarrizketa herriko iloba batek egiten dio Enekoitz etxeko artegian.

Behiekin eta txakurrarekin bordan

-*Nola erraten da ayer a la noche?*

-Bart

-*Ba...bart... lau grado*

-Bart etzia otzik eiten.

-*Ez?*

-Gaur eiteik gíao. Il biar diat argia, il biautela argia. Argitto gori nik ikusten nia, klaro...argi gori zeota biztuik.

-*Baia ez duzu...*

Deskargatiar? Ez sarri deskargatuko dut, orein biartut aziendak porke einbiartut beak axuri gura orei daukat goseak...

-*Sarri zer da? sarri da berantago*

-Sarri da 'luego'.

-*A, klaro! Sarri artio hasta luego*

orei biartia biartiat...aiba Zirilo! [txakurrari, zaunka hasi da]. Gau duk, gau duk... eroetxe bat, eroen etxea duk au, orei ematen txetak piensoa.

-*ta esnea kentzen diezu edo ez?*

Ez, goek [zekorrak] larriak dira ta goek batzen dute guzia, goek entregu dira

-*nola erran duzu?*

-entregu direla goek, andiak direla, entregu direla esne gorrendako, goek batzaute erroa ta...

-*Nola? Batu? O sea beber, beber es batu?*

(...) batu, batu...*beber es edan, batu es mamar Cojones!... Zirilo!*

-*Ta Zirilo du izena?*

-Ez, Montes baia nik erraten txakotat Zirilo, ta Juxtak geizki erraten txadak, karo!

-*Zergatik?*

-Ya zetako erraten dakotan Zirilo. Iñaki ere fantzua, edo gen txaoak?

- *gen txaoak ta geldituko da e!*

-*Ta gelditiardu?*

-Bai oigetitabedratzi arte edo...

-A...Oitabedratziraino ezta fan bear, bizpirur egun,

-bai bizpirur egun

-egun bakar batzuk, egun bakar batzuk.

-*Ta Juxta ez da jaitxiko?*

-Ba!, sautsiko da bai

-Nola? Sautsi sautsi?

-...orei txakurra aitui eta etorkok katuen eta tzakurren xaneikin...

-*nola?*

-Gori xaok, gori xaok gori eztuk ez tzakur eztuk ja, ta mekaguen!! [txakurra behi baten gainean igo da] ozkein bazae beartzen bezala etze igein ez goiti gorra, ozkein bazae pateteik aretxei eta beii etzute utziko igatra ez. Ongi emein tzekote ostiko zemeit.

Patatak sailkatzea

- 'Selección' nola erraten da, nola erraten da, 'envasar'? I ere faten yiz patatak bereistera?

-Ez, ez, ni eñeiken fan. Ni faten baniz gara, iltzen naiz. Beneno garek, beneno goek afektatzen txadatek eta eñeiken fan

-zer?

-Beneno goek afektatzen dadatela eta eñeiken fan almazenera. Egoentuk, ta feinindua gustora, baia zendako fanbear diat, ta gero atratzen nun burukomin batekin

-*Ta otza, otza ere?*

-Bah! Otzeina, otzeina gan eztuk... eztik galako otza eiten ez baia...niri lokes veneno, beneno gori, ta errauts gorrek. Gero jendea ermaiten beitu zakueta patatak, zaku goek egoten dira gorri gorriak.

-*Ez dut konprenitzen, baia, nola tratatu?*

Patakek ustiartzitea, ustiaute patakek, tratatzeko lurrian, ustu zakuak, fan zakuekin ta raas! ustu ta

-*Baia orai eztute eiten!*

-Ta bai baia... primadan

-*Primadan zer?*

-Primadan erein bino len, ereiteko tratatiaute, bai pataka azia, baai, eta orduan, ustiarra eiteute zakueta.

Elkarrizketatua: Juan Luis Landa

Elkarrizketatzailea: Mikel Arrese

5.1. Betetzen diren ezaugarriak

Zuazok (2014: 108) proposatzen dituen ezaugarrietatik hauek betetzen dira: 1. azentu indartsua, azkenurreko silaban. 2. Aferesia eta sinkopa. 3. erdal *-on* eta *-ion* amaierak gordetzea. 4. Instrumentalean, *-s* apikaria izatea: *bi egunes edo irures, gabasko* 'gauerako'. Adibide honetan kontuan izan behar da *-s* herskari ahoskabe baten aurrean agertzen dela, eta ez hitz amaieran. 8. Nork-nori-nor adizkietan *-it-* morfema agertzen da: *eztuk ikusi?*. 10. Geroaldian *-tuko* > *-tiko* bilakaera dugu. Osotara %45 betetzen dira. Horrez gain, Caminoren ezaugarri eskusiboetatik bi betetzen dira: *-s* instrumentalarena eta N-N-N sistema *-it-* pluralgilearena.

Caminoren (2009) bertze hauek betetzen dira, osotara %36 betetzen dira:

Sinkopa, aezkeraren joera bizi-bizia da: *ogeitabedratzi, gortra, igatra, erman* ‘eraman’. Noraino morfemarekin ere forma sinkopatua nagusitzen da *-taraino: honatreino* ‘honaraino’.

Bertzaldetik, *-u >-i* dugu: *-tu behar >-tiar: gelditiar* ‘gelditu behar’, *deskargatiar* ‘deskargatu behar’, *tratatiardute* ‘tratatu behar dute’, *ustiartzitea, ustiarra* ‘ustu beharra’

Morfologian, modua adierazteko *-ik* dugu: *biztuik* ‘piztuta’. Aditzetan, geroaldiko morfema *-en* da: *emein tsekote* ‘emanen zioten’, ezaugarri hedatua nafarreran, Imotzen, Basaburu Nagusia eta Larraun barne (Apalauza 2012: 364).

Utzi aditzarekin *-tzera* nominalizazioa dugu: *beii etzute utziko igatra* ‘behiei ez zieten utziko ateratzen’. Sintaxian denborazko morfema *-larik* da: *gen dagoleik* ‘hemen dagoenean’.

5.2. Eremu zabalagoa hartzen dutenak

Ekialdeko hizkerekin eta euskara nafarra den bertze eremu batzuekin lotzen dituzte hauek:

-Bokal arteko */ia/* hiatoaren galera agertzen da, Erroibarren eta Aezkoan ohi denez: *bea* ‘behia’ (Camino 1997: 318) eta (Ibarra 2000: 57).

-*Yod*-aren ahoskera *x-* da: *Xaneikin* ‘janariarekin’, *sautsi* ‘jautsi’, Aezkoako mintzoa ekialdeko hizkerekin lotzen duena. Horrez gain, igurzkarietan *jo-*taldea *f-* bihurtzen da hitz hasieran. Euskal Herriko toki anitzetan, adibidez, Aezkoan eta Sakanan ohikoa da: *fan* ‘joan’.

-Zenbatzaileetan *bizpirur* ‘bizpahiru’ dugu, izenik gabe doanean, Aezkoan eta euskara nafarrera hedatzen da joera hau. *Hiru* eta *lau* zenbatzaileetan *-r* kontsonantearekin bukatutako aldaerak gordetzen dira, arkaismoren erakusgarri, behe-nafarreraz, aezkeraz eta lapurteraz ohi bezala.

-Erakusle eta izenordainek *g-* dute hasieran: *gen* ‘hemen’, *goek* ‘horiek’, *gori, gortra, gena, gara*. Jakina denez, ezaugarri honek Nafarroako ekialdeko hizkerekin lotzen du Aezkoa (Camino 1997: 407) eta Erroibarreraino hedatzen dira (Ibarra 2000: 128).

-Ergatibo pluralean *-ek* dugu, ekialdeko euskalkietan ohi den bezala.

-Datiboarekin komunztadura falta dago, alegia, datiboaren morfema ez da aditzean agertzen, Baztango mintzoan ere gertatzen da (Salaburu, Lakar 2005: 147): *beii etzute utziko igatra* ‘ez zieten utziko behiei pasatzen’.

-Aditzetan, iraganaldian, **edun* eta **izan* aditz laguntzaileen azken *-n* galtzen da, hauxe da ondoko Erroibarko joera ezaguna: *ermaten nue* ‘eramaten nuen’ (Ibarra 2000: 179). Bertzaldetik, Nork-nori-nor sisteman *ako* erroa dugu nori 3. pertsona denean: *erraten dakotan* ‘erraten diodan’ eta ondoko Erroibarko aldaerekin lotzen dute (Ibarra 2000: 173). Bertzaldetik, *zeota* ‘zegok’ eta *txaetak* ‘zieat’ Aezkoako ezaugarri ia eksklusiboak dira.

-Sintaxi alorrean, osagarri zuzena genitiboari eransten zaio: *-ren...tzeko* egitura dugularik, euskara nafarrean eta ekialdeko hizkeretan bezala (Camino, 1997: 502).

-Lexikoan *sarri* ‘gero’ eta *hil* dugu, ekialdeko hizkerekin lotzen duena (OEH s.v. 6. adieran). ‘Apagarse, extinguirse (una luz, una llama, un fuego)’.

Honainokoa laburbilduz, Abaurregaineko testuak euskara nafarra izateko betetzen ditu ezaugarri ugari. Dudarik gabe, badu ekialdeko isuria erakusten duten ezaugarri saila, (erakusle eta izenordainen *g-*, ergatibo pluralean *-ek*, *hiru* eta *lau* zenbatzaileetan *-r* kontsonantea, ergatibo pluralean *-ek*, sintaxi alorrean osagarri zuzena genitiboari eranstea...). Denak garrantzi handikoak dira, kokapen geografikoa eta dialektologikoak erakusten duen bezala; bertzaldetik, aditz morfologian aezkeraren ezaugarri ia eskusiboren bat ere badago. Horrez gain, ondoko Erroibarko aldaerekin konpartitzen ditu ezaugarri batzuk. Honenbertzez, argi dago euskara nafarra izateko irizpide ugari betetzen dituela.

VI. URDAZUBI

Elkarrizketa Urdazubiko Klemente Suhasi egina da, 25 urteko gaztea. Etxean beti euskaraz egin du; elkarrizketa egiten diona herriko bertze gazte bat da.

-Bueno, in biar datzut entrebista labur bet ogei minutotakua edo ola, e, ingo dazkitzut galdera batzuk ta zuk kontestatuko nauzu, bale?

-Ederki.

-*Bueno, e, aitu dugu bai telebistan, edo radioan, edo periodikoan, beti izan direla famatuek Urdazuiko ta Zugarramurdiko lezeak, pues, ze, ze komentatzen alko zinuke bakotxai buruz, aber?*

Urdazuiko lezeak, pues, Urdazubiko lezeak ba beti jendea bisitatzera ta gaten da, da leze bat tipikoa die... alde guzietan ezaugarri etsiak, ta batuzu estalagmitak, estalagtitak, ta gero ya bakotsak ze imaginaziona duen, kusten du nahi duena. Bada bat erten dutela dena, erten diote Belén, erteute agertzen dela errege magoak ta gero aurrak eztakit zer; ni aunitz aldiz egon naiz ta eztut kusten, ta pues oi, eztute, pues, badire argiak, badute bideo batzuk ta maten tuztenak ta ongi prestatuek dire baino betiko lezeak.

-*Etsie da, ez?*

-Bai etsie da. Ezta deus. Gero, noizpait sartu izan ga gu, badire bertze galeria batzuk izaten garena bisitatzen, ta nee lagun bat bizi da, oi, lezian onduan ta sartu izanga andik ta ura ya egiazko lezeak dire, errestan ibiltzen za, zilintzan, zilo barnetik sartu ta argiaikin buruan, ta oi bai, egiazko sala oi pullita bai.

-*Udan da toki bet arras bisitetue, ez?*

Bai, Urdazuiko lezeak franko bisitatzen die, beti Zugarramurdikoek bisitante geiau kartzen tuzte. Ta udan in zuten oai, badire iru erri emen, hiru leze, hola

famatuenak dire, Urdazuikuak, Zugarramurdikuak, ta gero Sarakuak. In tzu-
ten, ola, bidexka bat ta zaldi ttiki batzuekin markatua, ta jendea gaten al da
Urdazuiko lezetaik, Urdazuiko lezeak kusi, gero Zugarramurdiko lezeta, ek
ikusi, ta Saraino. Ta Sarako lezeak ongi kusten aal tie. Ta gero, oi, ta, bainon,
hemen fama geiena dutena die Zugarramurdiko lezeak, oi sorginen istorio
horrekin.

*-Komentatu zerbeit Zugarramurdiko lezei buruz? Badire diferentziek bi lezeen
artian, ez?*

Bai, Zugarramurdiko leziak dire leze batzuk erekiak, ez tie, ezta betiko lezee-
nak. Da, ba, olako sala aundi bat, ta gero, pues, sala aundia dena erekia da,
andik pasten da infernuko erreka, ta gero goitian badu bertze sala ttiki bat, oi,
ta eztakit nola erten dioten, akelarren sala, edo eztakit zer, an er teutena leno
denboretan sorginek iten zuztela hemen akelarreak ta hoi, ta gero,
bueno, bertzeik, Zugarramurdiko lezetan ezta ola gauz aundik, sartzen da bisi-
taria, ezta giaik ta pitxik, ta maten du itzulia bera bakarrik, oinez, ta gero, ezta
bertze istoriaik an; ta emen istorio gehien duten lezeak die Alkerdikuek die,
ez tie bisitatzen aal, etsiek dielako, ta han tortzen delako, ta oai ya urte
aunitz eztiela tortzen, baino, leno tortzen ziren, arkeologoak ta iten tzuzten
zilotu ta antxeman tzuzten jendiaik ezurak ta gero leze oietan badire bi gara-
batu, e..., bat da, eztakit, zaldi baten burua, nik uste, ta gero basauntz bat, ta
iek antxeman tzuzten, Barandainen edo, eztakit, baino ez tie kusten aal, oiek
etsiak tie, ta.

*-Zuek pentsatzen duze hemenguak izeki, noizbait erekiko dela, esplotatuko
dela ere zona oi.*

Eztut uste, ez, ez, gainea ni bein sartu nintzen ta ezta gauz aundigik kusteko
ola, oi, batu garabatu oik, pitxik geiau. Eztut uste. Baino neregatik eztut nai
ere.

-Bai ez, bertzenaz, jendez beteko zen au, ez?

Bai, ta gero ere bada hemen bertze zilo bat baduena istoria pollita, dela, oi
bada bertze leze bat, oi, arrobain bidian dena, izena du, emen deitzen diogu,
Domingito ergelen lezea.

-Nola?

Domingito ergelen lezea. Ta neri amatxik ta kontatua naute... Nik eztut zautu,
bainon, omen zen gizon bat, oi, Domingito zuena izena, Domingito eztakit
zer, gaixo aire bat bazuena, baino, bizi omen zen lezean, ta antxik bakarrik.
Beraiek aurrak zuelaik. Bai.

-zein da, zure ustez, bisitatuena? Urdazuikoak edo Zugarramurdikuak?

Toki batzutan aitua izan dugu, e, bueno, pixket tipikoena dena, edo lezei buruz
entenditzen duguna, dela geiago Urdazuikua, Zugarramurdikua baino? Bertze
batzuei gustatzen zaie geiago Zugarramurdikua pixket, airia librean delako,
ez? ola, pues, zuek badakize zenbat jende ibiltzen den uda bukaeran edo...

Ez, uste dut bisitatuena beti, izan diela, Zugarramurdikua. Ze badute istorioa, sorginena ta... Baino, bai, Zugarramurdikua bisitatuena.

-Gero, bueno, igual aldatzen dugu gaiez, ta bagazi, e... bueno pasten dugu bertze gauz batera, aitua tugu ere bai, besta tipikoa iten tuzuenak, iten zinutena, zela Zugarramurdiko refetak.

Elkarrizketatua: Klemente Suhas

Elkarrizketatzailea: Jon Miura

6.1. Betetzen diren ezaugarriak

Testu honetan emaitza kontrajarriak atera zaizkigu irizpide desberdinak aplikatu ditugunean. Zuazoren ezaugarri bakarra betetzen da, osotara %9a baino ez da. Hauxe da ezaugarria: aferesia eta sinkopa: *pasten* ‘pasatzen’, *zautu* ‘ezagutu’. Aldiz, Caminoren 25 ezaugarrietatik, askoz ehuneko altuagoa betetzen da, %44a. Honako ezaugarri hauek betetzen dira, fonetika-fonologia alorrean: aferesia: *zautu* ‘ezagutu’, sinkopa: *erteutena* ‘erraten dutena’. Bokalismoan *u > i* dugu: *zilotu* ‘zulotu’. Kontsonantismoan *-rtz* taldea dugu: *bertze batzuei*. Izen morfologian, genitiboan: *-aren > -ain* bilakaera dugu: *arrobiain bidian, jendia in ezurrak*. Bertzaldetik, aditzetan *dut* motakoak nagusitzen dira. *Badute istorioa, duguna...* eta baita *-te* morfema ere 3. pertsonan: *dute*. *Edun-en* iraganean *-inu-* erroa erabiltzen da: *zinutena*. Ahaleran *-tzen ahal* egitura erabiltzen da: *eztie bisitatzen aal* ‘ez dira bisitatu ahal’, *gaten al da* ‘joan ahal da’. Kausazkoetan *-lako* morfema dugu: *tortzen delakoz*.

6.2. Ereku zabalagoa hartzen dutenak

Lehenik eta behin, erran dezakegu ezaugarri eksklusiborik ez dagoela Zugarramurdiko testuan; denek, gehiago edo gutiago, ereku zabalagoa besarkatzen dute. Erran bezala, ereku zabalagoa hartzen dituzte hauek, lexikoan: *pitxik* ‘deus’. Baztango mintzoan eta behe-nafarreraz eta lapurteraz (OEH s.v. *pitxik*) ohikoa, eta *pullit*, Iparraldeko hizkeretan ohikoa (OEH s.v. *polit* 2. Adiera). Bertzaldetik, *ondar* ‘azken’ aldaera dugu, euskara nafarrekin eta Baztango mintzoarekin lotzen gaituena.

Bukatzeko, kontuan hartu behar da extraposizio bidezko TO Gen erako egiturarik ez dagoela: *sosa biltzeko* ‘dirua biltzeko’, egun Ipar Euskal Herrian eta ekialdeko hizkeretan nagusi direnak (Camino, 2003, 77). Berriemailearen adina ere kontuan hartu behar da, baina, argi dago atzeraka doan ezaugarria dela hau.

Dudarik gabe, badira Ipar Euskal Herriarekin lotura erakusten duten frantseseko maileguak: *fitsik*, Baztanen ere erabiltzen dena (Izeta 1996: 84), eta *refetak* ‘besta errepikatzea’ eta *sosa* ‘dirua’, hau orokorragoa da euskara nafarrean.

VII. ONDORIOAK ETA EZTABAIDA

Orain arte aipatutakoa modu laburrean adieraziko dugu koadro hauetan eta, aldi berean, portzentaiak aterako ditugu. Testuen luzera azterketarako muga handia bada ere, nahiko adierazgarriak dira ateratako emaitzak eta egoki adierazten dituzte tokian tokiko hizkeraren berezitasunak.

I. TAULA CAMINOK (2009: 349) PROPOSATUTAKO EZAUGARRIEN EMAITZEN APLIKAZIOA.

	Urdiain (%8)	Amaiur (%28)	Aniz (%32)	Abaurregaina (%36)	Aria (%24)	Urdazubi (%44)
1. Afer. Sinkopa		+	+	+	+	+
<i>u > i</i> palatal.				+		+
3. <i>Guaye, guartu</i>						
4. <i>-rtz</i>	-	+	+		+	+
5. <i>aren > -ain</i>						+
6. <i>-tako.</i>	+					
7. <i>-ren baita</i>						
8. <i>-rat</i>						
9. Modua: <i>-ki, -rik</i>	+			+		
10. <i>-en</i> (izanen)						
11. <i>-ki</i> hanpatua			+			
12. <i>dut</i> <i>Edun</i> orain		+	+	+	+	+
13. <i>-te</i> 3. Perts pl.		+	+	+	+	+
14. <i>Den, dela/nintzen, zen</i>	-	+	+	+	+	+
15. <i>Goazi, zoazi</i>						+
16. <i>Ibili</i> (nabile)						
17. <i>Nor-nork</i> (-iñu- erroa)	-		+			+
18. <i>Sintek.</i> (zabilen)						
19. <i>Heldu</i> <i>naiz</i>		+				
20. <i>Ahal. -tzen ahal</i>						+
21. <i>Kausaz. bait -lakos</i>	-	+		+	+	+
22. <i>-larik</i> <i>Denbor.</i>	-		+	+		

	Urdiain (%8)	Amaieur (%28)	Aniz (%32)	Abaurregaina (%36)	Aria (%24)	Urdazubi (%44)
23. <i>uste...n</i>						
24.Ezezeko perp <i>-la</i>						
25. <i>utzi, eman...-tzera</i>				+		

2. TAULA. ZUAZOREN (2014, 108) EZAUGARRIEN EMAITZEN APLIKAZIOA. BELTZEZ CAMINOREN (2009: 348) 5 EZAUGARRI ESCLUSIBOAK.

	Urdiain (%0)	Amaieur (36%)	Aniz (%27)	Abaurregaina (%45)	Aria (%36)	Urdazubi (%9)
1.Azentu indartsua		+	+	+	+	
2.Afer,sinkop.		+	+	+	+	+
3.-on,-ion			+		+	
4.-s instrum.				+	+	
5.joan (noaie)		+				
6.-ren bat/ -on bat						
7.yaiz						
8.N-N-N (-it)		+		+		
9. Nor-Nori <i>-ki</i>						
10.-tuko,-tiko				+		
11. <i>oa-, goa-</i>						

Aztertutako testuen emaitzen ondorioz, hauek dira ondorio nabarmenenak. Lehenik eta behin, ezaugarri gutien betetzen duen hizkera Urdiaingoa da; hau dela eta, mugatik bertze aldean kokatzeko arrazoiak badira, bi dialektologoen irizpideak erabiliz. Caminok (2009: 352) aurretik aipatutako liburuan ere hala aurkeztu zuen: "Dialektoen banaketan nafarreratik kanpo ageri dira Nafarroakoak ditugun Arano herria eta honako ibarrok (...) Euskal Herriko mendebaleko eta erdialdeko ezaugarri ugari nahaska eta batera dituen Burundako euskara atzendu gabe". Bertzaldetik, Zuazok "tarteko hizkera" bezala izendatu zuen Burundako hizkera hau. Bukatzeko, Caminok (2009) proposaturiko 5 ezaugarri eksklusiboetatik ez da betetzen ezta batik ere. Honen ondorioz, mugaz bertzaldera ikusten dugu guk hizkera hau.

Bigarrenik, bertze bloke batean Baztango bi testu eta Aezkoako biak ditugu. Bi mintzo hauek nahiko antzera agertzen dira, emaitza berdintsuak erakutsiz bi ikertzaileen irizpideak aplikatuz, euskara nafarraren barruan kokatzeko ehuneko

handiekin. Aezkoan, Zuazoren arabera, %40 eta %30 inguruko emaitzak lortzen dira, eta Caminoren irizpideen arabera, biak antzera agertzen dira (Abaurregaina %36 eta Aria %24). Ezaugarri eskusibo batzuk ere betetzen dira; testuaren mugak izanda ehunekoak altuak direla uste dugu eta Aezkoako mintzoak euskara nafarra izateko munta badu.

Halarik ere, kokapen geografikoa dela eta, bi eragin lektal agerian gelditzen dira Aezkoako mintzoan, ekialdeko edo Pirinioetako hizkeren ezaugarriak eta behe-nafarreraren eragina.

Gisa berean, Baztango testuetako emaitzak %30 inguruan dabilta, bi irizpideak kontuan harturik; eta nafarreraren ezaugarri eskusibo batzuk ere betetzen dira. Zentzu honetan esan behar da, -s instrumentalaren berrikuntza euskara nafarraren ezaugarri eskusibotzat jotzen dela, baina Baztanera ia ez da heldu. Bertzaldetik, Iparraldeko mintzoekin duen lotura ere agerian dago, bere kokapen geolinguistikoa dela-eta antzekotasun nabarmenak daude, baina inondik inora mugaz bertze aldeko hizkerekin lotzeko adinakoak. Baztango mintzoa nafarraren eta nafar-lapurtarraren tartekotzat hartzeko (Zuazo 2003: 106-110) nahiko argudio ez dagoela iruditzen zaigu, testu hauen arabera. Laburbilduz, euskara nafarra izateko, alegia, mugaren barruan egoteko badira arrazoiak.

Azkenik, Urdazubiko testua nahiko nafartua agertzen da Caminoren ezaugarriak (2009) aplikatuz, %44 emaitza altua da. Ordea, Zuazoren irizpideak hartzen baditugu, mugatik bertze aldera dakusagu, ezaugarri bakarra betetzen delako. Emaitza honek argi uzten du ezaugarri batzuk hartu ala bertzeak hartu emaitza desberdinxeak izan ditzakegula; argi dago ezaugarri gehiago hartuz gero, aukera handiagoa dagoela betetzeko eta kopuru urria hartzen badugu aukera gutiago dago testu batean horiek betetzeko. Nolanahi dela ere, Caminoren ezaugarriak ez dira erabat eskusiboak eta errazagoa da horiek betetzea, erraterako, 12. 13. 14. eta 21. ezaugarriak. Bertzaldetik, ezaugarrien izaera ikusita, nafarreraren kokatzeko ezaugarri eskusibo horietatik bat ere ez da betetzen. Emaitza hauek agerian uzten dute irizpideak zein diren, emaitza horrelakoa izan daitekeela.

Nolanahi dela ere, eta bukatzeko, eta aplikatutako metodologian oinarrituz, testu hauetan oinarrituz, 6 testuetatik 5etan betetzen dira euskara nafarra izateko irizpideak; alegia, Urdiaingo testuak izan ezik, gainerakoek euskara nafarrean kokatzeko irizpideak betetzen dituzte, gehiago ala gutiago.

BIBLIOGRAFIA

- Apalauza, A. (2008) *Imozko euskara*. Nafarroako Gobernu.
- (2012) *Nafarroako ipar-mendebaleko hizkeren egitura geolinguistikoa*, Bilbo, Iruñea, Nafarroako Gobernu, Euskaltzaindia.
- Camino, I. (1997) *Aezkoako euskararen azterketa dialektologikoa*, Iruñea, Nafarroako Gobernu.
- (2003) *Hego-Nafarrera*, Iruñea, Nafarroako Gobernu.

- (2009) *Dialektologiatik euskalkietara tradizioan gaindi*, Donostia, Elkar.
- Emeneau, M.B. (1956) «India as Linguistic Area», *Language* 32, pp.3-16.
- Epelde, I. (2003) *Larresoroko Euskara*, Argitaragabeko tesia.
- Erdozia, J. L. (2004) *Sakanako Hiztegi Dialektologikoa*, Nafarroako Gobernua, Euskaltzaindia.
- Euskaltzaindia (1995) [OEH] *Orotariko Euskal Hiztegia*, 18 ale, Bilbo, Euskaltzaindia.
- Ibarra, O. (1995) *Ultzamako hizkera. Inguruko euskalkiekiko harremanak*, Iruñea, Nafarroako Gobernua.
- (2000) *Erroibarko eta Esteribarko hizkera*, Iruñea, Nafarroako Unibertsitate Publikoa.
- (2007) *Erroibarko eta Esteribarko hiztegia*, Iruñea, Nafarroako Gobernua, Euskaltzaindia.
- Izeta, M. (1996) *Baztango hiztegia*, Iruñea, Nafarroako Gobernua.
- Mitxelena, K. (1976) «Acentuación altonavarra», *FLV* 23, pp.147-162.
- Montoya, E. (2004) *Urdazubi eta Zugarramurdiko euskara*, Iruñea, Nafarroako Gobernua.
- Rijk, R. (1992) «Nunc vasconice», *ASJU* 26-3, pp. 695-724.
- Salaburu P. (1986) «Baztango euskalkiaz. Elizondoko doktrina bat», *ASJU*, XX-3, pp. 817-844.
- Salaburu, P., Lakar, M. (2005) *Baztango Mintzoa: gramatika eta hiztegia*, Iruñea, Nafarroako Gobernua eta Euskaltzaindia.
- Veny, J. (1996) «Fronteras y áreas dialectales» in G. Aurrekoetxea & X. Videgain (arg.), *Nazioarteko Dialektologia Biltzarra, Agiriak*, Iker 7. Euskaltzaindia. Bilbo, pp.197-245.
- Zelaieta, E. (2008) *Baztan-Bidasoako hizkeren azterketa dialektologikoa*, Iruñea, Euskaltzaindia.
- Zuazo, K. (1998) «Euskalkiak, gaur», *FLV* 30, pp.191-233.
- (2003) *Euskalkiak, Herriaren lekukoak*, Donostia, Elkar.
- (2010) *Sakanako euskara. Burundako hizkera*, Iruñea, Nafarroako Gobernua, Euskaltzaindia.
- (2014) *Euskalkiak*, Donostia, Elkar.